1.GAIA

* def. psikologikoak
* def. soziologikoak
* def. kritikoak

1.ZER DA GIZARTE PSIKOLOGIA? (aurkezpenan beste batzuk)

- Giza interakzioaren ikerketa zientifikoa.
- Gizabanakoen pentsamenduetan, sentimenduetan eta ekintzetan, besteen ekintzek, sentimenduek, eta pentsamenduek -inplizitoak, iruditurikoak, edo hautemandakoak- nola eragiten duten ulertzen, azaltzen eta aurreikusten saiatzen den disziplina → ALLPORT, 1935
- Gizabanakoa eta ingurua (besteak) nola harremantzen, elkar eragiten eta hautematen diren aztertzea bilatzen du; hau da, prozesu sozial eta kognitiboen efektuak aztertzen dituen ikasketa zientifikoa da.

Lotura duten 2 prosezu hauetan oinarritzen da:

Prosezu soziala	Inguratzen gaituzten pertsonek eta kide garen taldeek gure pentsamendu, sentimendu eta ekintzetan eragiten duten modua
Prosezu kognitiboa	Gure memoriak, munduarekiko dugun pertzepzioak, sinesmenek, emozioek eta motiboek, gure ekintzak eta mundua ulertzeko era baldintzatzen duten modua.

- Beraz, gizarte psikologiak prozesu sozial eta kognitiboei jarraiki, norbanakoen portaera soziala ulertzea bilatzen du.

Metodoak:

M. ESPERIMENTALA	Egoera artifiziala, kontrolatua, harreman kausalak bilatzen dira, aldagai dependientean eragiten da
M. KORRELAZIONALA (ez esperimentala)	Aldagaiak kontrolatzeko zailtasunak daudenean (generoa, adina, maila ekonomikoa), aldagaien arteko korrelazioa aztertzen da. Aldagaien kontrol urriagoa. Ez dira harreman kausalak bilatzen. Inkesten erabilpena.
M. OBSERBAZIONALA (behaketa)	Parte hartzailea edo sistematizatua. Aldagaiak ezin dira manipulatu, eremu naturalean gehienetan.
ELKARRIZKETAK	Egituratuak/erdi-egituratuak/egituratu gabeak
EZTABAIDA TALDEAK (Focus group-ak)	
IKERKETA PARTE HARTZAILEA	Ikuspegi kritikoa

Bi enfoke:

Ikuspegi kuantitatiboa	Ikuspegi kualitatiboa
-Ikerketa bide sistematizatua (metodo itxia). -Ikertu eta ikertzailearen bereizte argia. -Ikerketa galdera eta hipotesi zehatz batzuei erantzutea bilatzen da. -Neurtzen da. -Emaitzak/datuak orokortzea bilatzen da. -Errealitatea modu objektiboan jasotzea bilatzen da. ***Bideak: Metodo esperimentala, korrelazionala***	-Errealitateak anitzak direla ulertzen da. Ikertzaile eta "ikertuaren" arteko elkar eragina. -Gai berriak lantzea edo aurretiko esanahiean sakontzea bilatzen da. Ulertzea. -Ikerketa galdera berriak garatzea bilatzen da. ***Bideak: Elkarrizketak, behaketa, eztabaida taldeak, ikerketa ekintza parte-hartzailea.***

(+) GIZARTE PSIKOLOGIAREN ABC: (Martín et al., 2000)

3ak giza esp. osatu

- → Afektua (sentimenduak)
- → Portaera (hartu-emanak) : trukaketa soziala
- → Kognitioa (pentsamenduak)

Pertsonen arteko harremanak ulertzeko.

2.GIZARTE PSIKOLOGIA MODERNOA:

- → Bi kokapen hasieratik: Testuinguru soziala azpimarratzen den prozesu indibidualetan eta gizabanakoanzentratua. (ikuspegi esperimental eta indibidualista)
- → Gizarte psikologiaren sorrera AEBn kokatzen bada ere pentsamendu sozial europearrean erroturik dago.
- → Ikuspegi indibidualista, konduktista eta esperimentala. Errazte sozialaren esperimentua: Audientziaren efektua (Tripplet); Errazte sozialaren efektua (Allport).

Konduktismoa:

- → 1920-1950 hamarkadetan Psikologia Sozial amerikarraren korronte nagusia izan zen.
- → Jokabidea ulertzeko, azalpenak entitate behagarrietara mugatu.
- → Estimulu-erantzuneko erredukzionismoa.
- → Jokabide guztiak ulertu daitezke inguruneko zigor/sariaren bidez.
- → Ez ziren egoera subjektiboak, pentsamenduak edo sentimenduak aztertzeko beharrik ikusten.
- → Oinarrizko autoreak: Watson, Skinner

Gestal psikologia, Kurt Lewin-en ekarpenak:

- → Eremuaren teoria: Nola azaldu giza portaera?
  - Interpretazio subjektiboa: Nola interpretatzen du bere ingurua norbanakoak? Egoerak begiratu behar ditugu gizabanakoek duten ikuspuntua kontutan hartuz, ulertzeko nola eraikitzen duten beraien mundua.
  - Norbanakoa subjektu aktiboa da: Informazioaren eraldaketan, manipulaketan, erabilpenean parte hartze aktiboa egiten du.
  - Osotasuna eta interdependentzia: osotasuna, parte guztien batura baino gehiago da
- → Oinarrizko auoreak: Kurt Lewin, Asch

Europan 2. mundu gerraren ondotik:

- → Eskari handia.
- → Psikologia sozialaren amerikanizazioari kritika: hausnarketa eza.
- → Tajfel eta Moscovici:
  - Portaera indibidualen dimentsio soziala azpimarratzen dute.
  - Jendarteak bere egitura propioak dauzka, norbanakotik abiatuz ulertu ezindakoak.

Gizarte psikologiaren garapena baldintzatu duen eztabaida:

- → Indibidualtasunean kokatzen den ikuspegia: Prozesu indibidualak azpimarratzen dira, eta honetan oinarrituz sistema sozialaren eragina.
  - Zer da jendartea? Norbanakoen batura hutsa? Norbanakoek baldintzatzen dute gizartea? Zer ikertu behar du gizarte psikologiak, norbanakoen arteko hartu emana?
  - Edo: Gizarteak baldintzatzen du norbanakoa? Zer ikertu behar du gizarte psikologoak, norbanakoen arteko prozesuetan egiturak daukan eragina?
- → Lewin hemen kokatzen da: Taldeak norbanakoan duen eragina azpimarratuz. Are ikuspegi sozialagoa dauka gizarte psikologia Europearrak.

(+) · JARRAITUTASUNA: aldatzen goaz, baina "berdinak garelako" ustea.
· BAKARTASUNA: bakoitzaren barruan ni asko baina bat eta bakarra garela
· SOGOETASUNA: egin (go) duguari buruz kritikoki pentsatzeko gaitasuna. (Self objektu gisa.)

2.GAIA (Self-a, 1.atala)

1.SELF KONTZEPTUA:

- Norbere buruaren eraikuntza modu aktiboan lortzen da.
- Self-ak bi osagai nagusi:
  1. Autokontzeptuak (Norbanakoaren kontzeptua): Gure buruaz ditugun pentsamendu edo sentimenduak.
  2. Autoestima: Gure buruari ematen diogun balioa, gur eburuarekiko nola sentitzen garen.
- Selfa rol, jarduera eta harreman anitzen bidez garatzen/osatzen da. Hala ere, batasun zentzua dauka.
- Self-aren ezagutza bizitzan zehar aldatu egiten da. Hala ere, jarraikortasunaren zentzua dauka.
- Self-a gehienetan objektu bezala ikusten bada ere, subjektu bezala ikusia izan daiteke. Erreflexibitatea darama.

2.SELF PERTSONALA/SELF SOZIALA:

Identitate pertsonala (Ni-A)	Identitate soziala
-Beste gizaki guztietatik izaki ezberdin eta berezi ihurtzen gaitu. -Elementu anitzen nahasketatik eratzen da: gustuak/preferentziak, nahiak, bizitzarekiko jarrerak, portaera moduak, sentitzeko eta pentsatzeko erak.	-Errol, jarduera, harreman, kidetza ezberdinen konbinaketatik eratzen da.

Mead, self soziala:

- Selfa ondorengo hiru osagaien emaitza da: (3 elementu hauei esker garatu.)

Beste orokortua	Ni ispilua	Bestearen ikuspuntu hartzea *
-Taldean besteen jarrera eta ikusmoldea kontutan hartuz eratzen dena. -Subjetua behartzen du errol desberdinak hartzera.	Besteengandik jasotzen ditugun mezuak kontutan hartuz eratzen dugun autoirudia.	-Bestearen begietatik mundua ikustea da. * ROLAK BEREGANATZEA

- Mead-ek desberdintzen ditu:

Nerea (osagai pasiboa, ekoizpen soziala) (OBJEKTUA)	Nia (SUBJEKTUA)
"Beste Orokortua" eta "Ni Ispilu"-prozesuen bidez gizakiak lantzen duen identitatea. -Besteen bitartez, harturiko errolen multzoa, eta jaso eta eratu dugun autoirudi multzoa litzateke. - Kanpotik jasotzeko gai garen hori ("nirea" den guztia = identitateak)	-Bat-batekotasuna, aurreikusi ezina. -Nia subjektu moduan. -Identitatearen osagai aktiboa da, nortasunari aktibitatea ematen diona. -"Nia" da, norberaz hausnartzeko, norberatik urruntzeko, norbera kritikatzeko, eta norbera objektiboki ebaluatzeko gai den gure buruaren osagaia. -Identitatearen osagai hau bakarra izango da, gizabanakoari garatzeko aukera ematen diona .

↳ Nola ikusia naizen edo nola ikusia naizelaren usteaz eratu.

↳ organismoaren erantzuna besteen jarrerekiko
↳ Self pertsonala eratzen du.
|
besteengandik desberdina egiten gaitu.

3.NOLA ERAIKITZEN DUGU GURE BURUARI BURUZKO EZAGUTZA?

Zein informazio erabiltzen dugu nor garen jakiteko?

Gure jokabideen behaketa: "Selfaren HautemateareanTeoria":

- ➔ Gure emozio, sentimendu eta jarrerez ez gaudenean seguru, nor garen ondorioztatzera heltzen gara gure portaera aztertuz:
  1. Zure portaera aztertzen duzu eta jokabidearen zergatia azaltzen saiatzen zara.
  2. Egoerak derrigortu zaitu horrela jokatzera edo aukera librea izan da?
  3. Zer motibatzen zaitu egiten duzun horretan? Motibazioa intrintsekoa izan al da?

Gure jokabide eta sentimenduen analisia: "Ezagutza pertsonalari buruzko Teoria"

- ➔ Konparaketa egiten dugu nia eta norberarentzako onartuak/garrantzitsuak diren arauen artean.
  - Noiz gertatzen da honakoa?
    -Batzutan gure atentzioaren erdigunea bihurtzen gara, batez ere ingurunean autokontzientzia sustatzen duen zerbaitekin topo egiten badugu. (Bideo batean agertzea, jendaurrean hitz egitea...). Une hauetan gu gara atentzio fokoa
  - Behin gure buruaz kontziente garela, zer gertatu daiteke?
    -Jokabidea positiboki ebaluatu badugu errepikatzea bilatuko dugu, errefortzu moduan hartuz.
    -Jokabidea aldatu (bat egin dezaten zure jokabideek eta barne estandarrek).
    -Barne kontzientziaz ihes egiteko (barne kontraesana ez nabaritzeko).

Besteekin konparaketa: "Alderaketa Sozialaren Teoria"

- ➔ Gizabanakoak bere gaitasun eta trebetasunez ikasten du besteekin konparatuz.
- ➔ Noiz hasten gara alderaketa soziala egiten?
  - Egoera anbiguoetan, ezjakintasuna sentitzen dugunean.
- ➔ Norekin aukeratzen dugu konparatzea? Helburuaren arabera:
  - Maila bereko konparaketak: zehaztasuna.
  - Goranzko konparaketak: autodesbalorizazioa; hobekuntza lortu nahi dugunean, helburuak altuagoak lortu.
  - Beheranzko konparaketak: gure burua babesteko, promozionatzeko.

- ➔ Kultura eta Selfa: "Self independiente eta interdependienteen arteko konparaketa."

Ezaugarriak	Kultura independienteak	Kultura interdependienteak
Selfaren definizioa	Gizabanako bakarra, ingurunetik banatua	Besteekin konektatua egotea errol eta harremanen bidez
Selfaren egitura	Bateratua eta egonkorra, harreman eta egoeretan zehar	Arina eta aldagarria egoera edo harreman batetik bestera aldatzean
Ezaugarri nagusiak	Barne nia, pribatua (gaitasun, sentimentu eta ezaugarriekin)	Kanpo nia publikoa (estatusa, rolak, harremanak)
Betebehar nagusiak	Ezberdina izatea, adierazi ahal izatea: barne helburuak lortzea adibidez	Talde pertenentzia, egokitzapena; modu egokian jokatzea, talde helburuak sustatzea

NORBANAKOEN ONGIZATEA BERMATZEKO

Kontrol ezari aurre egiteko estrategiak:

ISURI-AK

- → **Kontrolaren ilusioa:**
  -Eguneroko gertakizunak kontrolatzeko norberaren gaitasunean gehiegi sinestea da.
- → **Optimismo irreala:**
  -Gertakizun positiboak bizitzeko besteek baino aukera gehiago ditugula sinesten dugu; eta gertakizun negatiboak bizitzeko aukera gutxiago.
  ↳ loteria / istripu

2. GAIA (Self-a, 2.atala)

1.SELFAREN IRUDIKAPENA:

- → Self-aren irudikapena: gainerakoei modu jakin batekoak garela edota ezaugarri jakin batzuk ditugula sinestarazten diegu. Jendeak ze irudi duten gutaz inporta zaigu.
- → Nola jokatzen dugu norbait ezagutu berri dugunean? Zertaz hitz egiten dugu? Zertan oinarritzen gara elkarrizketa gauzatzeko?
- → Helburu batzuk erdietsi nahi izaterakoan selfaren irudikapenak garrantzia berezia hartzen du. (lan elkarrizketa batean adibidez)
- → Sare sozialen bidez espazio berri bat garatu da Self-aren irudikapena garatzeko moduari begira.

2.SARE SOZIALETAN SELF-AREN IRUDIKAPENA:

- → Sare sozialak giza interakzioko tresna esanguratsuak dira.
- → Online identitatea daukagu.
- → Sare sozialetan egiten dugun Self-aren irudikapenak online identitatea osatzeaz gain offline identitatean eragina dauka. Izan ere, dugun autoestima zein autokontzeptuarekin lotzen da.

3.IKUSPEGI DRAMATURGIKOA:

Oinarri nagusiak:

- → Norbanakoon egunerokoan Self-aren irudikapena antzeztearekin alderatzen da.
- → Antzezleak aurreko antzeztoki batean rol bat jokatzen du audientzia batentzat, eta atzeko antzeztokian dagoenean antzeztokitik ateratzen da jokatzen duen rola alde batera utziaz.
- → Beraz pertsona batek jokatu ditzakeen rolak anitzak dira eta testuingurura egokituak.

Aurreko antzeztokia eta Atzeko antzeztokia:

- → Atzean aurre antzeztokian ezarritako auto mugaketak kentzen dira.
- → Banaka edo taldean igaro gaitezke atzeko antzeztokira
- → Atze antzeztokirako sarbidea mugatua izaten da; honen garrantzia efektiboa izateko.
- → Atzeko antzeztokia egotearen garrantzia rola ongi burutu ahal izateko.

Audientziaren segregazioa:

- → Pertsona batek audientzia ezberdinaren aurrean rol ezberdina joka dezakeelako, audientzia honek topo ez egitea sahiestean datza.
- → Espazioan bi rolak aldenduz ekidin daiteke. Hala ere, kontuz, egoeren oreka aurkitzea komeni izaten da

Nola aplikatzen da ikuspegi dramaturgikoa sare sozialei?

- → Kontzeptu gakoa: Desolatutako Self-aren irudikapena
- → Bi lekuetan daude/gaude aldi berean. Publiko aurrean dagoena eta ez dagoena.

4.SARE SOZIALETAN SELF-AREN IRUDIKAPENA AURKEZTEKO UNEAN GARRANTZIZKOAK DIREN ESPARRUAK

Self-aren deskripzioa:

- → Hitzak erabiliz egiten dena da.
- → Kontu handiarekin egiten da, itxura desiragarria ematea bilatzen da, jartzen/esaten duguna neurtuz baina gezurrik esan gabe. Aukeraketaren ideia. Besteak beste, gure gustuak, balioak, pentsatzeko era, erlijioa..adieraziz burutzen duguna da. Askotan modu ez zuzenean egiten dugu.

Jarrera baieztapenak:

- → Gai bati begira dugun jarrera plazarazten dugunean egiten duguna da.
- → Autodeskripzioak baino zama handiagoa dauka Selfaren irudikapenean

Ahozkotasunean oinarritzen ez diren portaerak:

- → Emozioen adierazpenean oinarritzen diren portaerak: Espontanekoak al dira? Honakoa kontrolatzea Self-aren irudikapenaren kontrolaren erakusle da.
- → Itxura fisikoa: Ikusgarriena eta adierazgarriena. Itxura fisiko jakin bat argitasuna, soziablea.. izatearekin lotzen da. Soziaki baloraturiko edukiak ezaugarri fisikoekin lotzen dira. Kontzientzia maila ezberdinak daude itxura fisikoari begira egiten dugun horretan.

Lotura sozialak/Harreman sozialak

- → Ez dago gure ezaugarri pertsonalekin zuzenki loturik, baina Self-aren irudikapena era positiboan eraikitzean eragina dauka.

5.EGOERA TRABAGARRIAK EKIDITEAREN GARRANTZIA ETA ESTIGMAREN ERAGINA SELF-AREN IRUDIKAPENEAN

Egoera trabagarriak: Portaerak eraiki dugun irudiarekin bat ez egitean gertatzen da. Gure irudiaren kontra doazen irudiak/egoerak orekatzen saiatzen gara.

- → Gure portaera indibidualei lotua
- → Hartu emanei lotuta (adb elkarrizketa deserosoak)
- → Norma sozialak hausten dituen talde batekin zer ikusia izatean.

Estigma: Interakzio sozial batean desakreditatzea dakarren atributo bat. Estigmaren eragina, egoera trabagarriez harago doa eta denboran irauten du. Ebaluazio negatiboa eragiteaz gain, pertsonarekiko portaeran eragina dauka.

- → Iraganeko egoerak (adb kartzelan egon izana)
- → Ezaugarri fisikoak edo talde sozial batekoa izatea.
- → Norbanakoen izaera (adibidez umore aldaketa handiak).
- → Estrategiak: gordetzea, onarpena

3.GAIA (1.atala, talde arteko harremanak):

- → Funtzioak:
  -Inguru sozialaren konplexutasuna murritzen du.
  -Objektu bat identifikatzen du.
  -Konnotazio emozionalak gain hartzen ditu.
- → Efektuak:
  -Talde barneko homogeneizazioa: Kategoria bereko kideen arteko berdintasunen gehiegitasuna
  -Talde arteko desberdintzea: kategoria desberdineko kideen arteko diferentzien gehiegitasuna


Kategorizazio soziala:

- → Inguru soziala sailkatzeko prozesua da, taldeak sortuz, eta taldeei ezaugarri komunak, jarrerak eta ekintzak lotuz.
- → Nola? Kategoriak ezberdinduz eta homogeneizatuz.
- → Beste pertsonenganako isuria:
  -Kontraste isuria (taldeen artean)
  -Antzekotasun isuria (taldearen baitan) asimilazio

Autokategorizazioaren teoria eta kategorizazio soziala: (TURNER, 1987)

- → Autokategorizazio 3 maila daude:
  -Maila subordinatua: Alderaketa interpertsonala. Norbanakoa pertsona bakar bezala. (Identitate pertsonala)
  -Erdi mailakoa: Endotalde eta exotalde kategorizazioa antzekotasun eta ezberdintasun sozialetan oinarritua. Talde arteko prozesua. (Identitate soziala)
  -Maila superordinatua: Gizaki bezala . Espezietan oinarritua. (giza identitatea) gizaki id. kokatuz autokateg.
- → Erdiko mailan zentratuz: ↑ self.
  -Arazoa: estereotipoekin (talde sozial espezifiko batenganako sinesmenak dira) nahasten da eta enpatia galtzen da exotaldeari begira. Estereotipoak eta aurreiritziak (ezagutzen ez dugun pertsona bati begira aurretik eraturik dugun iritzia, eta gehienetan negatiboa dena) kategoria sozialetan oinarriturik garatzen ditugu.
- → Estereotipoak eta aurreiritziak aktibatzen dituzten hainbat kategoria sozial:
  -Sexua/Generoa, Adina, Egoera zibila, Klase soziala, Itxura fisikoa, Hezkuntza maila, Lan egoera, Erlijioa, Estatus profesionala, Etnia, Egoera migratzailea eta Nazionalitatea.

Identitate sozialaren teoria:



⊕ Identitate soziala positiboa mantentzeko beharra azpimarratzen da.


Hau mantentzeko pertsonak garatutako estrategiak + bideak ulertz ahalbidetu.

- → <u>1.Prozesua: Kategorizazio soziala:</u>
  -Kategorizazioaren bidez norbanakoek haien identitate soziala eraikitzen dute.
  -Kategoria batzuekin identifikatzengara eta beste batzuekin ez.
- → <u>2. Prozesua: Identifikazio soziala: (Identitate soziala eta autokontzeptua)</u>
  -Kategoria sozialak presente daudenean haiekin identifikatzea bilatzen dugu.Izan ere, identifikazioaren bidez autokontzeptua eratzen dugu eta identitate sozial positiboa edukitzen dugu. (Bereizgarritasun positiboa)
- → <u>Alderaketa soziala: Identitate sozial positiboa VS negatiboa:</u>
  -Zeren araberakoa da? Testuinguru sozialaren araberakoa eta alderaketa sozialaren bidez gure talde sozialari esleitzen diogun balioaren araberakoa.
  -Kategoria sozial batzuetatik ezin dugu "ihes" egin, ez baititugu denak aukeratzen.
  -Beste pertsonekin alderatzera iristen garen prozesua da.
  -Norbanakook gure talde sozialari jartzen diogun balioa nola jartzen diogun ulertzeko baliagarria da.
  -Talde kidetza positibo edo negatibotzat joko dugu alderatzen garen taldearen arabera eta testuinguru sozialaren arabera.
  -Beheranzko alderaketa soziala (Zure taldea hobea dela sentitzea): Alderaketaren emaitza positiboa izanen da zure taldearen ezaugarriak positiboagotzat kontsideratzen badira
  -Goranzko alderaketa: Identitate sozial negatiboaren iturria izanen da.

- → <u>Talde estatusa:</u>

Egonkortasuna/eza	-Taldearen egoera/ estatusa aldatu daitekela pertzibitzea ala ez.
Iragazkortasuna/ Permeabilitatea edo eza	-Talde batetik bestera igarotzeko aukera egotearen edo ez egotearen pertzeptzioa.
Zilegitasuna/ zilegitasun eza	-Sinesmenek talde estatusak zilegi bilaka ditzakete. Era horretan talde guztiek dauden estatusak onartzea gertatzen da. -Alderantziz, estatusak ez dira zilegi izaten sinesmenak zalantzan jartzen direnean

(Estatus apaleko taldeetako kideek ezberdintasun sozialak egonkorrak, taldeen arteko mugak iragazkorrak eta zilegiak direla pertzibitzen dutenean, mugikortasun indibidualeko estrategiak garatzen dituzte eta endotaldearekiko identifikazio eza.)



-2.Fasea:Parte hartzaileei galdetzen zitzaien dirua banatzeko esperimentuan parte hartzen ari ziren beste bi kide anonimori.

- Bi baldintza ezberdin: Ausaz aukeratutako bi pertsonei dirua ematea (kategorizazio gabeko egoera) edo endotalde eta exotaldeko bi kideri dirua banatzea

→ Emaitzak:
- Kontrol egoeran gehien aukeratzen zen estrategia berdintzailea zen.
- Kategorizazio egoeran, taldeen artean ezberdinasun gehiago egotea lehenesten zen taldeak irabazi gehiago edukitzearen aurrean
- Zentzurik gabeko kategorizazio egoeran ere, talde faboritismoa eta beste taldea kaltetzearen logika gailentzen dira.

Gatazka errealaren teoria:

→ Udaleku batean taldeak sortu zituzten; lagin uniformea:

→ Faseak:
-Taldearen sortze prozesua: kohesioa garatu.
-Gatazka sortu (lehia, saria) : Talde independienteak izatetik interdependienteak izatera igaro ziren. Umiliazioa eta bortizkeria taldeen artean= Taldearen baitako kohesioa gora.
-Gatazkaren arintzea: Kamioneta akanpamendura eraman beharra bazkaldu ahal izateko.

→ Ondorioak:
-Talde arteko lehia izango da baldintza beharrezkoa eta nahikoa, talde arteko diskriminazio eta gatazka egoerak gerta daitezen.
-Lehia-egoera: Bi talde helburu garrantzitsua lortzen saiatzen direnean, eta bietako bakar batek lortu dezakenean. Baliabide mugatuak daudenean.
-Lehia-egoeraren 4 ondorio agertuko dira:
- Talde barnean kohesioa.
- Talde kideen artean, pertsonen arteko loturak ezartzea.
- Beste taldearen errefusapena eta diskriminazioaren agerpena.
- Aurreiritzia

→ Talde arteko gatazka txikitzeko modua: Helburu komuna:
-Talde bientzat garrantzitsuak diren helburuen lorpena, eta honakoa elkarren arteko lankidetzaren araberakoa izaten da.
-3 ondorio:
- Talde arteko gatazkaren desagerketa.
- Aurriritziaren desagertzea
- Pertsonen arteko-loturen garapena. (hasierako taldeak kontuan izan gabe.)

→ Esperimentutik harago, inplikazio sozialak:
-Talde ezberdinetako kideak elkar harremantzearen garrantzia aurreiritzia/gatazka maila apaltzeko.
-Kontaktuaren politika: Ideia hau gaur egungo politika sozialetan aplikatzen da
-Garrantzitsua da helburu komun bat/kooperazio egoera izatea. Pertsonen arteko harremanak izan behar dira, ez talde artekoak.

2.NOLA EZBERDINDU TALDE ARTEKO HARREMANAK ETA PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK?

Pertsonen arteko harremanak:

- Beste pertsonekin ditugun harreman bakanen multzoa da. Norbanako bezala jokatzen dugu

Talde arteko harremanak:

- : Taldearen parte/kide jokatzean datza.

Faktorea	Pertsonen artekoa (interpertsonala)	Taldea
Kategorien ikusgarritasuna	Apala	Altua
Taldearen baitan portaeren uniformetasun maila	Apala	Altua
Beste taldeekiko aurreikusgarritasun maila (uniformea/estereotipatua)	Apala	Altua

3.AURREIRITZIAK TXIKITZEKO BIDEAK

Kontaktuaren hipotesia: Kontaktuak aurreiritzia apaltzea ahalbidetuko luke:

- Interdependentzia kooperatiboa egonez gero.
- Estatusean berdintasun egoera.
- Harremana garatzeko potentziala.
- Erakunde babesa/babes instituzionala edukiz gero.

" 4. GAiA "

	-Ez dugunez erreferentziarik besteena balizkoa dela suposatzen dugu
Gatazka ekiditea bilatzen dugu	-Usain eta tenperatuaren atsegintasun maila neurtu zituen. Banaka emaitza muturreragokoak taldean egiten direnekin alderatuz. -Zergatik? Desadostasunak judizoetan inseguritatea sortzen du, eta gero eta muturrerago kokatu desados egoteko aukera gehiago.
Erakargarritasuna eta pertsonen arteko hierarkia:	Esperimentua: 1. urratsa: bakarka arau normatibo indibidualaren garapena. 2. urratsa: taldean jarri, emaitza ezberberdineko pertsonak bikotetan, hiru konbinazioetan: A-Ezagutu berriak, estatus berdinekoak. B-Ezagutzen direnak, estatus berdinekoak, estima eskala betez. C-Posizio sozial ezberdinetako jendea. Emaitzak: -Ezagutu berriak, estatus berdinekoak: kobergentzia normatiboa. -Ezagutzen direnak, estima eskalarekin, estatus bera: konbergentzia normatiboa, baina gutxien preziatuak zirenenek erantzunen aldaketa preziatuenen norabidean -Estatus ezberdinak:hasieran estatusaren eraginpean egokitzapena, baina estatus altukoek judizioa mugitzen ez zutela ikusirik hasierako kokapenera itzuli ziren.
Jarreren eta kategorien arteko antzekotasuna	Taldearen eraginari men egiten diogu; Exotaldearen ideiari uko egiten diogu. Esperimentua: 1. saioa: bi pertsonek (konplizea eta subjektu esperimentala) iritzi galderei erantzun zieten: feminismoaz, nazionalismoaz eta dogmatismoaz. Norberaren norma sortzen da. Ondoren, subjektu batzuei konplizea beraien ideologia berekoa zela esan zieten, beste erdiari aurkakoa. 2. saioa: Iritzia berriro galdetu zitzaien. Emaitzak: - Konplizearen erantzunak gero eta desberdinagoak/muturreragokoak izan bigarren saioan subjektuak egiten duen hurbilpena handiagoa da (Ideologiaz informaziorik ez). Konbergentzia -Konplizeak erdi-bideko erantzunak ematean eta subjektuaren ideologia bera duela esan zaioenean konbergentzia handiagoa. Kategorizazio prosezuarekin bat -Konplizeak subjektuaren erantzun berdinak ematerakoan eta aurkako ideologia duela esan zaionean desberdintzapena ematen da.

3.KONFORMISMOA:

Zer da?

- ➔ Eragin soziala, konformitatearekin lotzen da.
- ➔ Eragin sozialaren lehen forma da.
- ➔ "Beste pertsona baten eraginez, edota taldearen presio erreala edota irudipenezkoen eraginez, pertsona baten portaera edo iritzian gertatzen den aldaketa da"
- ➔ Konformismo motak:
  -Kanpo konformismoa edo atseginezkoa.

-Barne konformismoa edo konformismo erreala
-Desberdintzapenaren edo independentziaren konformismoa.

→ Konformismoaren mekanismoak:
-Eragin informatiboa (ziurtasun-beharra: zuzena izateko)
-Arauzko eragina/ eragin normatiboa.(onespen soziala: onartua izateko)

→ Festinger:
- Errealitate sozialaz ari garenean (ez objektiboaz) gure judizioekiko balizkotasuna besteenarekin alderatuz burutzen dugu. Egokitzen gara
- Kontsentsua bilatzen dugu judizioen balizkotasunerako. Disentsuan egoteak ziurgabetasuna ematen digu.
- Zirugabetasuna txikitzeko bidea gehiengoarekin bat egitea da.
- Bideak: atseginezko erantzuna, gehiengoa aldatzen saiatu.

Konformismo motak/3 prozesu: → KELTLANEN PROZESUAK (1958)

KONPLAZENTZIA ← → Sumisioa edo Mendekotasuna:
-Sariak bilatu edo zigorra ekiditea bilatzen da
-Eraginaren oinarrizko elementua: Boterea
-Azaleko aldaketa → erreforztuak + zigorrak eukteko.

→ Identifikazioa:
-Taldearen balorazio positiboa bilatzen da. → autoirudia hobetu.
-Eraginaren oinarrizko elementua: Erakarpena
-Talde kidetzetan agerikoa

→ Barneratzea:
-Borondatezko aldaketa.
-Eraginaren oinarrizko elementua: Sinesgarritasuna (gaitasuna)
-Sakoneko aldaketa

Gehiengoaren eragina:

→ Asch-en esperimentua:
-Lana:Eskubian dagoen hiru lerroetatik zein da ezkerrean dagoen lerroaren antzekoa?
-7-9 subjektuen artean 1 zen esperimentala eta besteak ikerlariaren kideak.
-Erantzunak: indibidualki, publikoki
-1) Kontrol taldea zeuden subjektuen % 95ak ez du akatsik egiten: bakarrik.
-2) Talde esperimentalean aldiz % 37ko akatsa.

Adostasunaren indarra:

→ Konformitateak errealitatearekin bat egitea ahalbidetzen digu.
→ Erabiltzen diren talde-arauak zuzenak direnean gure kontrolatzeko beharra asetzen dute.
→ Konformitateak hanka sartzeko probabilitatea gutxitzen du
→ Desadostasunaren ondorioak:
- Sorpresa, nahasmena, ziurgabetasuna, zalantza...
- Errealitatea interpretatzeko dugun konfiantza ahuldu egiten du.

Taldearen tamainarren eragina:

→ Taldearen tamaina handitu ahala norbanakoan duen eragina ere handitzen da.

Ahobatezkotasunaren eragina:

→ Desbideratze bakarra nahikoa da konformitate tasa jausteko.
→ Konformitatea hausten duen pertsonaren postuaren eragina

Noiz ematen da muturreko obedientzia?

- ➔ Pertsonek ez dutenean nahi autoritatea iraindu.
- ➔ Pertsonek justifikatzen dutenean beraien portaera erantzukizuna autoritateari ematen diotelako. Ez dago erantzukizun pertsonalik.
- ➔ Pertsonek hasieran agindu errazak betetzen dituztenean eta gero, behartuak sentitzen dira zailenak betetzera.

Badira faktore batzuk autoritatearen presioari uko egitera laguntzen dutenak :

- ➔ Eraginaren indarra ezagutzea.
- ➔ Kasurik egin ez duen beste pertsona bat egotea.

ERAGIN SOZIALEKO ESPERIMENTU KLASIKOAK

- Eragin soziala + konformismoa aztergai dituztenak:

○ EFEKTU AUTOKINETIKOA ETA NORMALIZAZIOA (Sherif, 1935)

- gela ilun distantzia jakin batera argi bat, efektu optikoari esker mugitzen zela zirudien.
- zenbateraino mugitu argia? < Subj. erantzuna / ikusp. taldean / " " bakarka
- 3 ONDORIO:

* Pertsona erref. gabe + bakarka → bere erref. sortu.
* Pertson tald. erref. bestearena moldatu / egokitu.
* besteen presentzian egon gabe taldearen ideiak iraun. → tald. eragina nabarmendu.

○ TALDE SUMISIOA ETA GEHIENGOAREN ERAGINA (Asch, 1956)

- objektiboa den errealitateak islatzen digunaren aurrean ere, taldearen ikuspegiak norbanakoan eragina du.
- Norbanakoa → taldean sartu.

5.GAIA: JARRERAK ETA JARRERA ALDAKETAK (1.atala)

1.JARRERAK:

Zer da jarrera?

- Izaera sozialeko definizioak: “Gizabanakoaren taldeko balio sozialen isladapena,maila indibidualean”
- Portaera izaerako definizioak: “Objektu nahiz estimulu baten aurrean modu jakin batean erantzuteko edo jokatzeko joera da”
- Izaera kognitiboko definizioak "Erantzun bat da, zeinak pentsamendu-objektu bat judizio dimentsio batean kokatzen duena”
- Jarrera inplizituak: Ez dira boluntarioak, ezin dira kontrolatu, eta askotan inkontzienteak dira.
- Jarrera esplizituak: Jarrera hauek kontzienteki babesten eta ezagutzen dira.

Jarreraren osagaiak:


Osagai kognitiboa:	Osagai emozionala edo afektiboa:	Osagai konportamentala:
-Jarrera objektuarekiko dauden pentsamenduak eta sinesmenak. (mendira joatea onuragarria zait)	-Jarrera objektuarekiko agertzen diren erreakzio emozionalak. (mendira joatean pozik nago)	-jarrera objektuarekiko dauden ekintzak eta portaerak. (asteburuan mendira joango naiz.)

Jarreraren funtzioak:


Ezagutza funtzioa	Mundu sozialaren konplexutasuna ulertzen/sinplifikatzen laguntzen dute.
Egokitzapen Funtzioa	Jarrerek talde pertenentzian eta onarpen sozialean laguntzen dute.
Funtzioen Konbinazioa	Jarrerek aldi berean funtzio desberdinak bete ahal dituzte.

2.JARRERAK ETA JOKABIDEAK

- Jarrerek portaera espontaneoak aurreikusten dituzte jarrera oso eskuragarria denean.
  -Jarrera Eskuragarritasuna: eskuragarri izatea jarrera portaeran bilakatzeko aukera.
- Eskuhartzean:
  -Positiboki kontsideratzen diren jarrerak: areagotu nahiko ditugu. “Eskuragarritasuna”.
  -Negatiboak kontsideratzen direnak: ekidin nahiko ditugu. “Urruntasuna”.




- Jarrerek “nahita egindako jokabideak/antolatutako jokabideak” ere aurreikusten dituzte. Eskuragarritasuna ez da faktore garrantzitsuena ikuspegi honetatik.
- Intentzioa: **“Antolatutako Jokabidearen Teoriak”** esplikatzen du jarrerek jokabide antolatuak aurreikusi ditzaketela.





- ➔ Oinarrizko ereduak 3 elementu kognitibo dauzka, P,O,X:
  - P: Pertsona (honetan ematen da oreka/desoreka)
  - O: Beste pertsona (hautematen duguna)
  - X: Jarrera objektua (gauza, ekintza, gertaera, animalia...)

Egoera psikologiko orekatuak (konsistentziadunak)



Egoera psikologiko desorekatuak (konsistentzia gabeak)





3. DISONANTZIA KOGNITIBOAREN TEORIA (Festinger)

-Zer pasatzen da gure pentsamenduek eta portaerek ez dutenean bat egiten?
- Nola konpontzen ditugu gure pentsamenduen eta portaeren arteko kontraesanak?
=Esku-hartzeetan disonantzia erakusten saiatzen gara portaeretan eragiteko.

Oinarrizko printzipioak:

- ➔ Pertsona guztiek egiten dute.
- ➔ Pentsatzen eta egiten denaren arteko kongruentzian aritzeko joera.
- ➔ Inkongruentzia gertatzen denean disonantzia egoera ematen da.
- ➔ Honek tentsio egoera sortzen du eta oreka berrezartzea eskatzen du.

Disonantzia teoriaren funtsezko adierazguneak:

- ➔ Disonantzia kognitiboa egoera kaltegarria da (psikologiko eta fisikoki).
- ➔ Disonantzia kognitiboa egoera kaltegarria da (psikologiko eta fisikoki).
- ➔ Disonantziaren intentsitate mailaren garrantzia.

Disonantzia gutxitzeko erabiltzen ditugu:

- → Kognizioak edo portaerak aldatzea.
- → Gehitu informazio berria (kognizio kontsonantea) disonanteak diren kognizioei aurre egiteko.
- → Razionalizazioa, justifikapena.
- → Gutxitu kognizio disonanteek duten garrantzia / Inkonsistentziei pisua kendu.

Paradigma esperimentala, esperimentua:

- → Talde batek eginkizun bat egiten du. Denei aspergarria iruditzen zaie
- → Taldea 3tan banatzen da:
  - Heren bat laborategitik ateratzen da.
  - Heren bati parte-hartzaile berri bati gezurra esateko eskatzen zaio, eginkizuna dibertigarria dela esanez. Dolar 1 jasotzen dute horregatik.
  - Beste herenari ere berdina egiteko eskatzen zaio, baina saria 20 dolarrekoa da.
- → Denbora pasa ondotik galdetzen zitzaien eginkizuna dibertigarria ote zen (jarrera aldaketarik izan den ikusteko). Emaitzak:
  - 20 dolar jaso zituen taldeak gezurra esateko justifikazioa zeukan. Ez zeukan disonantzia kognitiborik eta eginkizuna aspergarri bezala baloratzen jarraitu zuten.
  - Dolar 1 jaso zuen taldeak disonantzia sentitu zuen, gezurra esatea justifikatzeko jasotako saria txikiegia zelako. Disonantzia gutxitzeko, eginkizunari buruzko jarrera aldatu zuten, eginkizuna dibertigarria zela esanez.

Disonantzia ematen den zenbait egoera:

- → Esperotakoa betetzen ez denean
- → Pertsonak justifikatuak ez diren jokabideetan parte-hartzen duenean
- → Erabaki eta gero ematen den disonantzia "Disonantzia post-erabakikorra" delakotik eratortzen da
- → Disonantzia taldearekin. Zer egingo dugu? Ingurua konbentzitu, gure jarrera aldatu, garrantzia kendu, taldez aldatu.
- → Zenbat eta esfortzu / sakrifizio gehiago, disonantzia handiagoa

Kritikak: ez da nahikoa inkonsistentzia egotea. Noiz daude pertsonak motibatuak inkonsistentzia murrizteko? Kontuan izateko faktore gakoak

- → Inkonsistentzia bera ez litzateke nahikoa baizik eta norberarentzat edo besteentzat kaltegarria izan beharko du.
- → Subjektuak, jarreraren aurkako portaera burutzeko, aukera-askatasuna izan beharko du
- → Azkenik, subjektuak erantzunkizun pertsonala onartu beharko du

Disonantzia Fenomeno motibazionala al da?


- → Festinger-entzat, tentsioa sortarazten duen heinean, Disonantzia motibatzailea da.
- → Cooper & Fazio-k elkarren artean bereizten dituzte, disonantzia-arousala eta disonantzia-motibazioa.
  - Arousala:Ekintzarako prest gaude. Adibidez kafea hartzean. Aktibazio egoera ez zehatza da. Ez da portaera zehatz batekin lotzen.
  - Egoera motibazionala aldiz bai. Adibidez, gose bagaude jango dugu.

5.GAIA, JARRERAK ETA JARRERA ALDAKETAK, PERTSUAZIOA (3.atala)

1.PERTSUAZIOAREN IKERKETA: TEORIA, ESKOLA ETA EREDU BATZUK:

Yale eskola:

- ➔ Mezu pertsuasibo batek pertsona baten jarrera edo portaera aldatzea lortzeko, mezua jasotzen duenaren pentsaera aldaraztea lortu behar du.
- ➔ Pertsuasio prozesua nolakoa den ezagutzeko faktore edo pauso batzuk definitu ditzazkegu.



Erantzun kognitiboaren teoria:

- ➔ Erantzun kognitiboa ematen diegu jasotzen ditugun mezuei. Mezu pertsuasibo bat jasotzen dugularik beti alderatzen dugu gure ezagutza, sentimendu eta aldez aurretik ditugun jarrerekin
  - Pertsuasioa bai: bat egitean gure pentsamenduekin.
  - Pertsuasioa ez: aurkako zentzuan joatean
    - " Boomeran efektua": Pertsuasio mezuaren kontra garatzen ditugun argumentuek pertsuaditzen gaituztelarik.
- ➔ Mezu pertsuatsiboaren aurrean aldeko edo kontrako argumentuak bi elementu hauen arabera garatuko ditugu:
  - Distrakzio maila: handia bada, (aldeko zein kontrako) argumentu gutxiago garatzen dira.
  - Inplikazio maila: handia bada argumentu gehiago.

Eredu heurestikoa:

- ➔ Dena modu arrazionalean egiten al dugu? (Aurreko ereduan norbanakoaren inplikazio aktiboa genuen. Hemen ez.)
  - Erabaki asko modu azkarrean hartzen ditugu, analisirik egin gabe.
  - Ez gaitu beti mezuaren edukiak pertsuaditzen, baizik eta ingurukoak:

        - Izaera superfiziala duten edukiak (adb argumentu kopurua)
        - Helarazten duenaren iturria: erakarpena, esperientzia, antzekotasuna
        - Ingurukoen erreakzioak "beste askok berdina pentsatzen dute".
- → Noiz gertatzen da modu ez arrazionalean pertsuaditua izatea?
    - Motibazio apala edukitzean
    - Mezua ulertzeko gaitasun gutxi dagoenean
    - Mezuaren kanpo elementuak deigarriak direnean

<u>Petty & Cacioppo-ren eredua. Elaborazioaren probabilitatearen eredua (ELM):</u>

- → Aurreko bi ereduak bateratzen dituen eredua da.
- → Bi estrategia mota garatzen ditugu mezu pertsuatsibo baten aurrean
    - Erdiguneko bidea:
      -Prozesamendu sistematikoa
      -Mezu hauek interesarekin analizatzen dira, modu arrazionalean
      -Aldaketa ematen bada luzerako izango da, portaera aurreikusiko du eta kontrako mezuei aurre egingo die.
    - Azalaldeko bidea:
      -Mezu hauek guregan eragin ahal dute ere. Baina gure buruan azkar igarotzen dira, ez dira analizatzen eta azalaldeko irizpideek markatzen dute ebaluaketa
      -Eragin dezaketen aldaketa txikia da, jarrera aldaketak ez du irauten.
- → Elaborazioaren probabilitatea kontinuo bat da:
  Prob. Baxua—---Prob. Altua
  • Gehiago ala gutxiago pentsatzeaz gain, kualitatiboki ezberdinki pentsatzen da polo bakoitzean.
- → Nola azaltzen da probabilitate maila altu ala baxuan kokatzea pertsona?
    - Motibazioak (Inplikazioarekin lotura) eta gaitasunak (Distrakzioarekin loturan)
    - Prozesamendu bideen, eta motibazioaren eta gaitasunaren arteko erlazioa:
        - Motibazio eta Gaitasun altua: Erdibideko bidea.
        - Motibazio eta Gaitasun baxua: Azalaldeko bidea.
        - Motibazio eta Gaitasun ertaina: Bi bideak.
          *KONTUZ! Norbanakoa probabilitate altuko egoeran kokatzen bada, eta begiratzen ari den iragarkian soilik aspektu superfizialei garrantzia eman bazaie, zein ondorio izanen du iragarkiak? KONTRAKOA
          Norbanakoa probabilitate baxuko egoeran badago, eta iragarkia argumentu arrazionalen bidez gauzatzen bada, zein ondorio izanen du? OSO GUTXI

Katearen ezaugarriak	Mezu zailak: idatzia.	Mezu errazak: ikus-entzunezkoa.
Hartzaileen ezaugarriak	Inteligentzia -Pertsona azkarrek hobeto jaso eta ulertu ditzazkete mezuak, baina pertsuasio-mezuei erresistentzia hobea egin diezaiekete ere	
	Autoestima: Autoestima ere positiboki erlazionatzen da pertsuasio-mezua jasotzearekin eta negatiboki pertsuasio-mezuaren onarpenarekin	
	Diskrepantzia ekiditen: Esposizio selektiboa. Pertsonok gure sinesmen eta jarrerekin bat datozen mezuak bilatzeko eta jasotzeko joera daukagu eta kontrako mezuak ekiditekoa. Hala ere, atentzioa jartzen diegu neurri batean aurkakoak diren mezuei, hauek interesgarriak, berritzaileak edo erabilgarriak iruditzen zaizkigunean	
	Inplikazioa: Gaiarekiko inplikazio altua duen pertsonetan argudio sendo eta kalitatezkoek eragin gehiago izango dute inplikazio apala dutenekin alderatuz. Gaiarekiko inplikazio apala duten pertsonengan berriz, azalaldeko seinaleek eragin	
	Inokulazioa: Gai batetiko duzun ikuspegia modu arinean zalantzan jartzen bada, eta aurrerago modu argiagoan erasotzen bada, errazago aurre egingo diozu kontra argumentuari. Jada garatu dituzulako argumentuak. Honakoak funtzionatzeko, hau da, pertsona erresistenteago egiteko, garatu dituen argumentuak aurka jaso dituenak baino indartsuagoak izan beharko dira	

3.PERTSONEN ARTEKO ERAGIN TAKTIKAK:

Hanka atean:

- ➔ Emakume talde bateri zuzenean eskatu zitzaien fabore handi bat: Kontsumo ohiturak ezagutzeko helburuarekin ikerketa batean parte hartzea .
- ➔ Beste emakume talde bateri lehenik fabore txiki (telefonoz parte hartzea) bat eta ondoren handia
  = Lehengoan % 22ak onartzen du, bigarrenean %52ak, **eskakizunak pixkanaka galdetu.**

Low Ball: Baldintzak aztertzea:

- ➔ Hasteko:
  - Kontrol taldeari proposatu zieten hautazko kurtso bat goizeko 7tan. %24a apuntatu zen
  - Talde esperimentala: Proposatu zuten hautazko kurtsoa, ordutegia azaldu gabe. %56a apuntatu zen
- ➔ Ondoren: Komentatu zuten goizeko 7tan zela
  - Talde esperimentala: ez zen inor desapuntatu. Izena eman zuten %95a joan zen.
- ➔ Askotan erabiltzen da produktuak saltzeko: Baldintza batzuk proposatu=Guk bai esan, baldintzak aldau=Gure iritzia ez aldatu.

4.PERTSUAZIOAREN PRINTZIPIOAK:

Elkarrekikotasuna :	-Norbaitek zerbait oparitzen badigu seguruenik guk ere oparituko diogu zerbait. -Betebehar edo obligazio araua sortzen da -Kultura guztietan gertatzen da.
Kontsentsua:	-Egoera batean nola jokatzeko zalantzak baditugu, besteei nola egiten duten begiratzeko joera daukagu.
Konpromesua eta konsistentzia:	-Behin konpromezu bat hartuta pertsonek hartutako konpromezua beteko dute. -Konsistentzia mantentzen saiatuko gara. Hipokrisiarekin bat.
Sinpatia:	-Errazagoa da ere "bai" esatea: - Pertsona fisikoki polita dela iruditzen bazaigu. - Pertsona gure antzekoa bada. - Pertsonak zoriontzen bagaitu
Autoritatea:	Obedienteak izateko joera dugu. "Jakintsuari" kasu egitea.
Eskasia:	-Zenbat eta gutxiago egon orduan eta balio gehiago du -Zenbat eta arraroago izan, orduan eta jende gehiagok nahi du

-Egozpen-prozesu baten bukaera: Behatzaileak jokabidearen kausa aurkitu duela uste du:

- Barne-kausak: pertsonalak, aktoreari dagozkionak, bereak direnak (Gaitasuna+motibazioa)
- Kanpo-kausak: ingurunekoak, testuinguruari dagozkionak. (Zailtasuna+aukera+zortea)


➔ Ideia nagusiak:
-Zientifiko inuzenteak gara.
-Barne gatazka sortzen digunari erantzun bila: egoera inkoherente, ezengokorren aurrean erantzun bila aritzen gara, aurreikusgarriak, ulerkorrak eta kontrolagarriak bilakatu daitezen
-Barne kasuak vs Kanpo kausak.
-Aurreikusgarritasuna bilatzen du. Barne kasuei garrantzia gehiago: akatsa.
-Erantzunkizun maila: zenbat eta pisu gehiago inguruneko elementuek, orduan eta erantzunkizun baxuagoa izango du pertsonak gertakizuna ematean.

3.JONES ETA DAVIS: INFERENTZIA KORRESPONDIENTEEN EREDUA:

➔ Jones & Davis (1965) Egozpenek jokabideak aurreikusteko balio dute.
➔ Jones & Davis egozpen hauen ikerketan zentratzen dira: Inferntzia korrespondienteak: Behatutako jokabidetik pertsonaren ezaugarri pertsonalak ondorioztatzen dituzte.
➔ Inferentzia korrespondiente bat emateko baldintza bat bete behar da: Intentzioa. (Aktoreak jokabidea nahi gabe egin badu, jokabide hori ezingo zaio bere ezaugarri pertsonalei egotzi.)

Ereduaren bi urratsak:

1. Behatutako portaeratik, intentzionalitatea inferitzea.
2. Intentzionalitatetik, disposizio pertsonalak egoztea.



➔ Baldintzak:
- Behatzaileak ikus behar du aktoreak jokabidea burutzeko GAITASUNA duela.
- Behatzaileak onartzea aktorea kontziente (KONTZIENTZIA) dela bere ekintzak eragindako ondorioez.

Eredua betetzeko baldintzak eta erraztatzaileak:

- ➔ Intentzioa: Gaitasuna, aukeratze askatasuna eta ondorioen kontzientzia portaera burutzerakoan
- ➔ Komunak ez diren elementuak: egin dituen ekintzaren ondorioen aniztasuna eta bereizgarritasuna.
  Efektu ez amankomunen analisia:
  - Aktorea, portaera desberdinen artean hautatzeko libre den egoeretan aplikatzen da.
  - Behatzaileak zerrendatu egiten ditu portaeraalternatiba bakoitzaren ezaugarriak.
  - Ondoren, hautatutako portaeran bestetan presente ez dauden ezaugarriak aurkitzen ditu.
  - Ezaugarri ez amankomuna zenbat eta agerikoagoa izan, garrantzitsuagoa izango da kausa bezala.
- ➔ Desiragarritasun soziala: gehiengoarentzat egindako portaera ohikoena al da/desiragarriena? Ala arraroa?
  Aktorearei buruzko espektatibak: Aktorea arauen kontrako edo sozialki gaizki ikusitako jokabideak egiten ikusten denean inferentzia korrespondiente bat egiteko probabilitatea gehitzen da. Esperotakoa ez baieztatzeak, arrazonamendu bezala ezaugarri pertsonal edo barnekoak bilatzera eramaten gaitu
- ➔ Pertsonalismoa: Egindako jokabideak eragiten al dit? Niri zuzentzen al zait ekintza? Inferentzia korrespondiente bat egiteko probabilitatea gehitzen du. Aktorearen jokabideak egozpena egiten duten pertsonengan ondorio positibo edo negatiboak eragiten dituenean.

4. KELLEY-ren KOBARIAZIO EREDUA:

- ➔ Edozein pertsonak egozpen bat egiterakoan kontuan izango du egoera eta momentu berdin zein antzekoetan pertsona berak izan dituen jokabideak eta beste pertsonek edukiko lituzketenak. Alderatuko du.
- ➔ Kelley-ren teoriak behatzaileek kausa-inferentziak nola egiten dituzten azaltzen du, ondokoa aintzat hartuz:
  - Aktorea=Portaera burutzen duena
  - Entitatea/Estimulua=Aktorea interaktuatzen ari den objektua.
  - Egoera=Gertakaria ematen den egoera-testuingurua.
- ➔ Horrela, 3 informazio mota jasoko ditu:
  - Kontsentsua=Beste pertsonek berdin erreakzionatzen dute estimuluaren aurrean?
  - Sendotasuna edo Konsistentzia=Aktoreak, iraganean/etorkizunean berdin jokatu du/jokatuko du estimuluaren aurrean?
  - Bereizgarritasuna=Aktoreak berdin jokatzen du beste estimuluen aurrean eta pareko egoeretan?

Kausa eskema:

- ➔ Kobariazio ereduaren mugetako bat:
  -Egozpena teorian informazio elementu guztiak ditugunean egin dezakegu. Bizitza errealean elementu hauetako batzuk ez ditugu aurkituko edota behatzaileak ez du denborarik / modurik izango informazio elementu hauek jasotzeko eta prozesatzeko.

6.WEINER-EN EKOIZPEN TEORIA:

➔ Lorpen + Porrotaren portaerak azaltzeko teoria motibazionala

Nola azal ditzakegu gure porrotak eta lorpenak?

Barne-Kanpo Dimentsioa:	Arrakasta edo porrotaren kausa subjektuaren barne edo kanpoko faktoreetan aurkitzen da? -Lorpena barne faktoreen bidez azaltzean emozio positiboak sortuko dira. -Porrota barne faktoreen bidez azaltzean emozio negatiboak sortuko dira. -Lorpena zein porrota kanpo faktoreen bidez azaltzean emozioetan sortuko den eragina eskasa izango da/txikia
Egonkortasuna-Ezengon kortasuna dimentsioa	Arrakasta edo porrota eragiten duen kausa denboran zehar aldagaitza edo aldakorra da (-Arrakasta edo porrota eragiten duen kausa denboran zehar aldagaitza dela pertzibitzen bada lorpen eta porrot maila berdinarekin jarraituko dela esperoko da. Aldiz, aldakorra dela pertzibitzen bada aukerak irekiak izanen direla pertzibituko da.
Kontrolabilitatea-Inkontr olabilitatea:	Subjektuak pentsatzen du arrakasta-porrotean nolabaiteko kontrola duela, ala alderantziz, bere eskutik kanpo dela. -Pertzibitzen bada arrakasta-porrotean nolabaiteko kontrola dagoela motibazioa eta lanean iraunkortasuna eragingo du honakoak. Aldiz,

➔ Dimentsio mota honetariko bakoitzari erantzuten diogun arabera, egozpen mota bat edo bestea egingo dugu

Egozpena		Ezaugarriak	
Gaitasuna	Barnekoa	Egonkorra	Kontrolagaitza
Esfortzua	Barnekoa	Ezegonkorra	Kontrolagarria
Zoria	Kanpokoa	Ezegonkorra	Kontrolagaitza
Zailtasuna	Kanpokoa	Egonkorra	Kontrolagaitza

7.EGOZPENAREN ERROREAK, SESGOAK ETA FUNTZIOAK:

➔ Egozpen-iritzietan orokorrean ez dago errealitatearen irizpide sendorik, horregatik isuriei buruz hitz egin behar dugu (Fiske eta Taylor-en arabera (1984) pertsona batek egozpen-iritzi bat egiterakoan isuriak ditu.)

Egozpenaren Oinarrizko Errorea:

➔ besteen jokabidea azaltzeko beraien barneko disposizioak (izaera, pertsonalitatea, ezaugarriak...) arrazoi bezala jartzeko gehiegizko joera. Egoeraren indarrari ez dio behar bezalako pisurik ematen edo honen eragina ukatzen du.

Aktore- Behatzaile Isuria/Sesgoa:

➔ Portaerak azaltzerakoan behatzaileak ezaugarri disposizionalei garrantzia gehiago ematen diela azaltzen du, norberaren portaera azaltzean egoerari loturiko elementuak aintzat hartuko dituen bitartean

➔ Pertsonek norberaren portaera egoeraren araberakoa izaten dela hautematen dute, besteen portaerek aldakortasun gutxiago dutela hautematen duten bitartean. Beraz, pertsonek portaera berdina azaltzeko norberarena edo behatutakoa izatearen arabera bi irizpide edo neurri ezberdin erabiltzen dituzte.

Talde arteko harremanetan isuriak:

- → Egozpenaren Azken Errorea taldeerlazioetako azalpen-joera ohiko bat da. Azalpen-asimetria konsistente bat ematen da Arrakastaren/Porrotaren azalpenean:
  - Norberaren edo norberaren taldearen arrakastak barneko-kausei egozten dizkiegu. Porrota berriz kanpo-kausei egozten diogu
  - Beste pertsona edo taldeen arrakasta berriz, kanpo-kausei egozten diegu. Porrota berriz barnekausei egotziko diogu.

Egozpen isuri eta erroreen adibide gehiago:

- → Kontrol Lilura: Subjektuek bere ingurunea kontrolpean jartzeko duten posibilitateari buruzko usteari dagokio.
- → Mundu Justuko Usteak: Bizitzan bakoitzak merezi duena lortzeari buruzko usteari dagokio
- → Baieztapen sesgoa: gure ideiak baieztatzen duen informazioari lehentasuna ematean datza
- → Depresiozkoa: norberaren lorpena gutxiestea, inguruari lotzea.